



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2007-12-11

V.URTEA 1.310.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## II. Txuletoiaren festak 4.000 bisitari baino gehiago bildu ditu Tolosan

**GASTRONOMIA** «Arrakasta handia izan du jaialdiak», esan dute antolatzaileek; 2.500 kilo txuleta dastatu dira

**BERTAKO PRODUKTUAK** Egun hauetan, otorduez gain, erakusmahai ezberdinak jarri dituzte Zerkausion 3



NEREA URBIZU

## ANTTON IZTUETAREN ESKUTIK KANTUA ETA IRUDIA BAT EGINIK

**ALTZO** Euskal kantuak eta bertso ezagun eta ezezagunak abesteko aukera ematen du Power point bidez eginiko produktuan; «ondo pasaraztea» da bere helburu nagusia 4-5

**Ereitek jardunaldiak antolatu ditu Etorकिन Egunaren harira**

**TOLOSA** Filmak, hitzaldiak, afariak, musika, erakusketa... izango dira bihartik aurrera 2

**Ezin garaipenik lortu Mujikak eta Arrospidek Binakako Txapelketan**

**TOLOSALDEA** Pasa den asteburuan aritu ziren bi aizkolariak 6

**Altuna amezketarraren hurrengo hitzordua, etzi**

**AMEZKETA** Faustino Erremonte Txapelketan «bikain» ari da 6

**4.000 eurotik gora Ugarteko hilerriko obrak 5**

# Etorkinen Eguna ospatzeko, jardunaldiak Ereiteren eskutik

**Gizartea** » Bihar hasi eta datorren asteartera arte ekitaldi ugari izango dira: filmak, hitzaldiak, afaria, musika, erakusketa...

## INIGO TERRADILLOS

Hilaren 18an izango da Etorkinen Nazioarteko Eguna, eta hori ospatzeko jardunaldiak antolatu ditu Ereite elkarte multikulturalak. Ekitaldiok bihar hasiko dira, datorren asteartera arte iraungo dute, eta hitzaldiez, erakusketaz, dantza taileraz, ipuin-kontaketaz eta aforri eta kontzertuez gozatzeko aukera izango da.

### 'Ipuinartean-Txiki'-a

Gaztetxoie zuzenduriko ekitaldiekin hasiko dira jardunaldiak, izan ere, ipuin-kontaketa saioa izango da bihar arratsaldean Ibarra Kultur Etxean, eta ondoren, *Ipuinartean-Txiki*-a inauguratuko dute; hau, munduko ipuinetan inspiraturik, Hirukide, Laskorain eta Samaniegoko ikasleek egin dituzten obren erakusketa da. Lucha ere izango da, eta baita haurrentzako aurpegi pintura ere. Astelehenean amaituko da *Ipuinartean-Txiki*-a. Beste ipuin-kontaketa saio bat ere izango da datorren astelehenean Ibarra Kultur Etxean, *Ipuinartean II* liburuko ipuinekin.

### Immigrazioaz zinema

Bi film izango dira ikusgai Leidor aretoan. Lehena, etzi, Zine Forum

saioaren baitan, *Cuando naces, ya no puedes esconderte*, M.T. Giordanarena; Sandro, dirudun familia bateko mutikoa, itsasora erortzen da Mediterraneoan zeharreko kruzero batean. Radu, immigrante ilegalen ontzi batean bidaiatzen duen gazte errumaniarrak jasotzen du. Sandrok guztiz ezezaguna zaion mundu bat ezagutuko du. Beste filma, Christopher Zallaren *Padre nuestro*, datorren asteartean izango da; Juan eta Pedrok immigrante mexikar ilegalez beteriko trailer batean ezagutzen dute elkar. Pedrok Juani kontaktzen dio bere aita New Yorkeko jatorri baten jabe aberatsean bihurtu zela. Juan Pedroren aitaren aurrean agertuko da bere seme gisa.

### Hitzaldi eta tailerrak

Ostiralean eta datorren astelehenean hitzaldiak izango dira immigrazioari buruz jakitunen eskutik, eta eztabaidarako tartea ere izango da. Horretaz gain, ostiraleko hitzaldiaren ostean sabel dantza ikasteko aukera izango da Ereite elkartearen egoitzan.

### Festa berezia

Etorkinen Nazioarteko Eguna ospatzeko jaia larunbatean izango da. Txinatar janari tradizionala dastatzeko aukera izango da Hong Kong jatorriko afarian (txartelak 15 eurotan Iratxon eta Triangulon). Eta ondoren, musika izango da nagusi goizaldera arte Abastos merkatuan. Tamsna perkusio taldearekin eta DJ Paularekin.



laz Etorkinen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldien une bat. E. E.

## » EGITARAUA

### Abenduak 12, bihar

■ **17:30.** Ipuin-kontaketa saioa Lur Kortarekin, Ibarra Kultur Etxean.  
■ **19:00.** *Ipuinartean-Txiki*-aren inaugurazioa. Hirukide, Laskorain, Samaniego eta Uzturpe-ko lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleek, munduko ipuinetan inspiraturik egin dituzten obren erakusketa Ibarra Kultur Etxean. Lunch txiki bat ere izango da.

### Abenduak 13, etzi

■ **19:15 eta 21:45.** Zine Forum proiektzioa Leidor aretoan: *Cuando naces, ya no puedes esconderte*.

### Abenduak 14, ostirala

■ **18:30.** *Itsasarte bat eta bizikidetasuna kondenaturiko bi ertz*, hitzaldia Abdelaziz Allaoui Kulturarteko Bitartekariarekin (Gurutze Gorria, Madrilgo Asanblada), Ereite elkartearen egoitzan (San Esteban 20). Ondoren, eztabaidatzeko asitia, tea eta pastak dastatuz.  
■ **20:00.** Sabel dantza tailerra Ereiteren egoitzan.

### Abenduak 15, larunbata

■ **21:30.** Etorkinen Nazioarteko Eguna ospatzeko jaia. Hong Kong jatorriko txinatarren afaria.  
■ **23:30.** Tamsna Saharaz hegoaldeko Afrika, Magreb eta Hego Amerikako kidez osatutako perkusio taldearen saioa.  
■ **00:30etik 02:00etara.** DJ Paula ariko da Abastos merkatuan.

### Abenduak 17, astelehena

■ **17:30.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria, Ibarra Kultur Etxean.  
■ **19:30.** *Pertsona etorkinen ametsak eta amesgaiztoak*, hitzaldia Victoria Mendoza Psikologo soziala eta Anitzak elkarteak kidea-rekin eta Laura Rodríguez Quiroga Genero, Migrazio eta Mundu Arabiar-Islamikoan espezializatutako Gizarte Langilea eta Torre de Babel-eko zuzendariarekin, Tolosako Kultur Etxean.

### Abenduak 18, asteartea

■ **20:00.** *Padre nuestro* filma, Leidor aretoan.

## «Integrazioa erraza da Tolosan txikia baita, baina ez agian duela gutxi etorri direnentzat»

**ANA SANZ** » Ereite elkarteak kidea

**Elkartasuna** » Ilusio handiarekin prestatu dituztela Etorkinen Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldiak dio

## I. TERRADILLOS

Ereite elkarte multikultureleko kidea da Ana Sanz. Gogotsu dago bihar hasiko diren jardunaldien aurrean, «ilusio handiarekin prestatu baititugu».

**Zer azpimarratzen duzu prestatu duzuen egitarauan?**

Gauza asko daude nabarmentze-



ko; oso interesgarria izango da *Ipuinartean-Txiki*-a gaztetxoek eskola orduetan egin dituzten obrak dira, eta horiek izango dira ikusgai Ibarra Larunbateko festa ere oso polita izango da; hemen, lehen aldiz, Txinako jendeak hartuko du parte, eta Txinan bertan jaten duten janaria prestatuko dute. Gero, oso interesgarriak izango dira hitzaldiak; datorren astelehenean, esaterako, askotan hitz egiten ez den gaiaz ariko dira, etorkinak hona etortzean barnetik jasaten duten prozesuaz, alegia, depresioak ere izaten baitituzte askotan. Beraz, egitarau osoa da

prestatu duguna, eta adin guztietzat, gainera.

**Zein da gaur egungo egoera Tolosan, immigrazioari dagokionez?**

Nahiko azkarra izan da dena, inor ez egotetik egotera pasa baikara, baina ez asko, beste lekuetan aspaldi baitzeuden, eta askoz ere gehiago baitaude; beraz, horietatik ikasteko aukera eman digu.

**Erraza al da integrazioa hemen?**

Herri txikia da, eta horregatik, integrazioa errazagoa da. Duela urte asko etorri zirenak oso integratuta daudela esan daiteke, baina duela gutxi etorritakoentzat, agian ez da hain erraza.

## L Laburrak

### Federatu txartela berritzeko aukera Oargin

**MENDIA** » Federatu txartela berritzeko epea ireki dute Oargin. Eskakizuna Internetez ere egin ahalko da, eta elkarrean bertan federatzeko edo txartela jasotzeko egunak astelehena, asteazkena eta osteguna izango dira 19:00etatik 21:00etara.

### Alpino Uzturren federatu txartela egiteko aukera

**MENDIA** » Alpino Uzturre mendi elkarrekin jakinarazi nahi du, astelehenean eta asteazkenean 19:30etik 21:00etara bitartean, 2.008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera izango dela beraien egoitzan.

### Gabonsariak banatzen hasi dira Harizpe elkartearen

**GIZARTEA** » Harizpe jubilatuen elkarteak jakitera eman du gabonsariak banatzen bihar hasiko direla. Hala, bihurtik, hilaren 21era arte egunero izango da egoitzatik pasatzeko aukera, 10:30etik 12:30era. Bestalde, jakinarazi dute, Gabonetako loterieren txartel gutxi geratzen zaizkiela.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 652339

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarra.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leiza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Germikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 943 693930

#### GARRIAOK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leiza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



Zerkausiaren alde batean ipinitako erakusmahaietan nahiz «jangelan» bertan ikus zitekeen lende ugari, asteburuan zehar. ESTI ZEIZA

## 4.000 lagunetik gora bildu dira egun hauetan, II. Txuletoiaren festan

### Gastronomia »

Antolatzaileen esanetan «arrakasta handia» izan du jaia; orotara 2.500 kilo txuleta dastatu dira.

### ERREDAKZIOA

Lehendabiziko Txuletoiaren festak arrakasta izan bazuen, bigarrenak are gehiago izan duela esan daiteke. Orotara, 4.000 pertsonen bazkaldu eta afaldu dute jaialdi honetan, eta 2.500 kilo txuleta jan dituzte denen artean.

Antolatzaileek luzatutako dastuen arabera, bazkalderen artean %70 Tolosaldekoak ziren eta beste %30a, Euskal Herriko beste zonaldeetako, Herrialde Katalanetako eta Madrilgoa. Asteburu luze honetako bost egunak turista askoren jopuntu izan da Tolosa. Eto-

ritakoek erretegiatiko ohiko menua dastatu ahal izan zuten, hau da, zainzuriak, kukuluak, urdaiazpikoa, piper gorriak, txuletoia, gazta eta Tolosako postre ezagunak.

Txuletoiaren festa dela eta, jate-txe handi bilakatu da berriro ere Zerkausia. Bertan Euskal Herriko sei erretegi ospetsuenetako sukaldariak aritu ziren jo eta su lanean. Horien artean, Casa Julianeko Matias Gorrotxategi; Casa Nicolaseko Pedro Ruiz; Burruntzi erretegi Juanjo Pascual eta Orueko Javier Hualde. Otorduen koordinak eta lanaz Divinus Catering arduratu zen. Bertaratutako esanetan, oso zerbitzu ona eskaini zuten Divinus Kateringekoek, eta jaki guztiak bere puntuak zeuden.

Txuletoiaren festara joan zirenek goserik ez zutela pasa garbi dago. Denera 2.500 kilo txuleta erre zituzten. Honez gain, 4.000

kukulu, 7.000 zainzuri, 1.000 piper pota, 3.600 xaxu, 3.600 zigarrata eta beste horrenbeste teila zerbitzatu zituzten. Bestalde, horrelako otorduetan falta ezin den bezala, 2.000 litro ardo eta beste horrenbeste litro ur edan ziren. Amaitzeko 4.000 kafe atera ziren.

Zerbitzu aldetik, egunero Divinus Catering-eko 25 pertsona arduratu dira horretaz.

### Postuak ikusgai

Otorduez gain, euskal produktuez osatutako postuak ere aurkitu zitezkeen Zerkausian. Bertaratutakoek, jaki eta edariak dastatu nahiz erosi zitazketen. Postuen artean zeuden: Nafarroako jatorri-izenekoak eta ekologikoak; informazio turismoa; Euskal Okelarena; ardo eta pintxo ezberdinak dastatzeko taberna; Goya harategiaren erakusmahaiak; Gorrotxategi eta Ecei-

za gozotegiak produktuen mahaiak; Huelvako Los Romanos urdaiazpiko postua eta baserriko produktuez osatutako saltokia.

### Haragiaren goratzea

Goya harategiko erakusmahaietan txuleta, azpizain eta entretokaren arteko ezberdintasunak zeintzuk diren azaltzen zuten. Bertan, txuletoiak, harribitxiak bailiran bezala, kristalezko erakusleho batzuetan ipinita zeuden. Harategiko ordezkaria den Koldi Larrartek azaldu bezala, «Txuletoiaren festaren helburua da jendeak gozatzeko». Gaineratu zuen ere, jendeak txuleta on bat zer den badakiela, baina honen inguruko mito ugari daudela. Horien artean, askok eta askokuste dutela, haragi guztia hemengo dela. Baina berak argi utzi zuen, hau «ezinezkoa» dela, ez baitago horrenbeste azienda.

## Laburrak

### Laskorain sailkapeneko lehen postuan da orain

**ARETO FUTBOLA** • Laskorain areto futbol taldeak erakustaldi bikaina eskaini zuen joan den asteburuan jokatutako norgehiagokan. Izan ere, 8-0ko emaitzarekin irabazi zion Bizkaiko Meatzari taldeari. Azken jardunaldi honen ostean, Laskorain K. E., Nazional B mailako lider berria da.

### Tolosa CFko zazpi taldetatik lauk irabazi dute

**FUTBOLA** • Tolosa CFko lau taldek garaipena lortu zuten asteburuko partidetan. Neskek Ostadarren aurka 1-2 egin zuten. Lurraldeko lehenengo mailakoek 2-0 galdu zuten Sto. Domingo Lizeoaren kontra. Ohorezko mailako kadeteek 4-1 egin zuten Bergarakoen kontra. Eta Ohorezko mailako infantilek, 0-1 Ondarruko Aurreraren aurka. Jubenilen Ohorezko dibisioak eta Lehenengo mailako kadeteek berriz galdu egin zuten. Lehendabizikoek, 7-0 Atilhetikoen aurka, eta bigarrenak, 0-1 Urnieteren kontra. Azkenik, Ohorezko mailako jubentilek eta Martutenek berdinketarekin, 3-3, amaitu zuten norgehiagoka.

### Lanbide Heziketa zentruak Agenda 21ekin bat egin du

**INGURUMENA** • Tolosako Lanbide Eskolag Agenda 21 ekimenarekin bat egin du. Konpromiso horren adierazgarri, hitzarmena sinatuko dute bihar, 11:00etan. Hau, Lanbide Heziketako egoitzan bertan egingo dute.

### TAKEko neskek lehen garaipena lortu dute

**SASKIBALOA** • Lan gorraren ostean hasi dira emaitza onak TAKE Laskorain-eko neskekentzat. Izan ere, lehen garaipena lortu zuten asteburuan (39-28). Maila bikaina eman zuten etxeko taldeak, lehen laurdenean «erdi lotan» atera baziren ere, erraz eman zioten buelta markagailuari, defentsa ona erakutsiaz. Hurrengo partida berri, Donostian, hilaren 15ean jokatuko dute, larunbatarekin, 09:00etatik aurrera, STL Lizasoaren aurka.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95





Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan garaipenik gabe geratu ziren asteburuan Arrospide eta Mujika. HITZA

## Binakako Txapelketan Mujika eta Arrospide garaipenetik gertu

**Aizkora** » Asteburuan ezin izan dute garaipenik lortu Jexux Mari Mujikak eta Anjel Arrospidek Binakako Txapelketan

(Bizkaia) eta Tolosan aritu ziren lanean, larunbatean eta igandean. Bietatik inork ez zuten garaipenik lortu.

### Larunbatean, Arrospide

Arrospide-Zubiaga bikoteak, Arria V-Peñagarikano izan zituzten aurrean Mendaron. Amaieran erabaki zen lehia eta 28 segundok erabaki zuten aizkora dema. Izan ere, azken proba jokatu aurretik, txanda librekoa, Arrospide eta Zubiagak 10 segunduko abantaila ze-

ramaten. Azken proban ordea, Peñagarikano eta Arria V.ak 38 segundoko atera zizkieten Leaburuko aizkolaritari eta Arabako Txapel-dunari.

### Igandean, Mujika

Lau segundora geratu ziren Mujika eta Olasagasti herenegun Tolosan jokaturako lehian. Ibartarrak eta Igeldoko aizkolarriak Azurmendi eta Ugarteburu izan zituzten aurrean eta hemen ere azken proban erabaki zen norgehiagoka.

### ASIER IMAZ

Asteburuan Tolosaldeko bi aizkolarik Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan norgehiagokak jokatu zituzten. Anjel Arrospide eta Jexux Mari Mujika Mendaron

## Zurea da hitza info

## «Ekuadorretik agur bero bat euskal preso guztiei»

**Gaztelu** » Ekuadorren aurkitzen diren bi gazteluarrek Cotopaxi mendia gailurretik mezua bidali dute.

### AMAIA IGARTUA ETA PATXI NAVAS

Azken aldian ez zaizkigu albiste onik heltzen Euskal Herritik eta ondorioz, Ekuadorren 5.897 metrotrora dagoen Cotopaxi mendia gailurretik, agur bero bat bidali nahi diegu euskal preso guztiei eta bereziki; Tolosako Oargi Mendi Elkarteako kide diren Isma eta Suniri, Algortako azken espetxeratuei (Lander, Aner...), 18/98-ko auziperatu guztiei eta Ibarako preso eta errefuxiatuei. Herri bat gara!



Cotopaxi (5.897m) mendia gailurrean Igartua eta Navas. HITZA

## Laburrak

### Agenda 21eko bilera etzi 18:00etan udaletxean

**BERASTEGI** » Agenda 21eko bigarren herri batzarra egingo dute etzi 18:00etan udaletxean. Bertan Ekintza Planaren lehen zirriborroa aurkeztuko da. Ekintza Plana osatzeko, Udalaz gain, iturri ezberdinak erabili direla jakinarazi dute arduradunek, «zenbait herritarren artean elkarrizketak egin dira, herri batzarra, zozketa baten antolaketak... ondorioz mota guztietako ekintzak atera dira; biztanleria, etxebizitzak, ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia eta ingurumena besteak beste». Ekintza Plan hori aurkeztuko dute batzarrean.

### Ibarak galdu egin zuen Burlataren aurka (4-2)

**IBARRA** » Larunbatean jokatu zuen norgehiagoka Ibarra taldeak Nafarroan, Burlataren aurka. Azken emaitza 4-2 izan bazen ere, ibartarren aurka, jokoan ez zen horrelakorik ikusi. Lehen zatian jaun eta jabe izan ziren Ibarra taldekoak. Atsedendira 0-1 iritsi ziren baina hortik aurrera, etxeko taldeak partidari beste itxura bat eman zion epailearen laguntzaz. Bigarren zatia hasi eta bi minutura, Burlatak banakoa lortu zuen. Ondoren ibartarrak aurretik jarri baldin baziren ere, azkenean 4-2 amaitu zen partida.

### Egues zoriontzeko argazkia igandean

**ELDUAIN** » Ana Belen Egues preso elduaindarrak abenduaren 19an urteak betetzen dituzenez, herritarrek urtebetetzera argazkia aterako dute abenduaren 16an, igandean, 13:00etan Urdelar Biltzikoko atarian. Horretaz gain, Eguesek «bizi duen eta izan duen egoera» salatu dute: «6 urte egin berri ditu preso politiko bezala eta denboraldi horretan 5 espetxetatik igaro da, gaur egun Huelva II-n aurkitzen delarik. Esan beharra daukagu, Soto del Realen egon den azken 3 urte eta erdi hauetan isolamenduko moduloan eduki dutela, horrek suposatzen duen krudeltasun guztiarekin: 20 ordu ziega barruan, telefono deiak murriztuak, patio orduak murriztuak etabar luze bat».

### Kirol Elkartearen batzarra abenduaren 21ean

**IBARRA** » Kirol Elkarteak (I.K.E.) Urteko Batzar Orokorra egingo du abenduaren 21ean 21:00etan. Antolatzaileek bazkide guztiei bertara agertzeko deialdia egin diete, jorratuko diren gaien garrantzia dela eta. Horretaz gain, urtero bezela, batzarrean gabonetako saskien zozketa egingo da bazkide guztien artean, izena emateko zerrrenda iada elkartearen taulan aurkitzen da.



Faustino Txapelketan parte hartzen ari diren erremontistak. HITZA

## Faustinorako prest dagoela erakutsi du Garikoitz Altunak

### ASIER IMAZ

Faustino Txapelketako partidak etzi itzuliko dira eta Altuna II.aren partida izango da horietako bat. Amezketarrak Ezkurra-Olazarren aurka jokatu du Galarretan Urrutiarekin bikotea osatuz.

### Azken partidaren indartsu

Asteburuan jokaturako partidaren, Garikoitz Altunak maila bikaina erakutsi zuen, 20 tantu eta 6 huts

egite bakarrik eginaz. Partidako izarra izan zen, ondorioz, Bitoria-Etxeberria III.a 32an utzi zituzten, Altuna II-Iriartek Galarretan.

Indarrez gainezka, amezketarra etzi itzuliko da Hernanira, jaialdiko bigarren partida jokatzera, Faustino Txapelketakoa hain zuzen ere. 16:00etan hasiko den jaialdian, Zeberio II.ak hirugarren partida jokatu du Iriarterekin batera, Juaristi eta Lizasoren aurka.



Ikaztegiatiko Euskal Jaian baitan azoka egin zuten azaroan. Argazkian, bonsaien postu bat. ASIER IMAZ

## Bedaioko I. Azoka Berezia egingo dute igandean, bertako produktuekin

**Bedaio»** Herriko baserrietako produktuak erakustea helburu duen azoka antolatu dute lehenengo aldiz.

### NAIARA GARZIA

Datorren igandean, hilaren 16an, Bedaioko I. Azoka Berezia egingo dute Bedaion. Azoka 10:00etan hasiko da eta goizez eta arratsaldez bertaraten direnek landa ere

mu honetako hainbat produktu ikusi eta erosi ahal izango dituzte. Antolatzaileek azaldu dutenez, «bazkaria 14:30ean egingo dugu, eta printzipioz azoka 15:00etan isteko asmoa daukagu, baina giroa badago, 17:00etara luzatuko da».

Azoka Bedaion izanik, bertako baserriarren produktuak, animaliak eta artisau lanak ezagutaraztea izango du helburu.

Hau izango da, beraz, zonaldean udazkenean egiten den bosgarren azoka. Azaroan Alegia, Amezket

eta Ikaztegieta izan ziren azokak antolatu zituztenak eta datorren igandean Bedaioren txanda izango da.

### Abereak salgai eta erakusgai

Igandean baserriko abere mota ezberdinak jarriko dira erakusgai, besteak beste, txerriak, behiak, ardiak, arkumeak, ahuntzak, oilarrak, untxiak, behorrak... animaliak gustuko dituztenentzat eta herriari bizi direlako hauek hain maiz ikusteko aukera ez dutenentzat

igandekoa parada ezin hobea izango da bertatik bertara baserrietako hainbat animalia ikusteko. Gainera, zenbait abere ere salgai jarriko dituzte.

### Baserrietako produktuak

Bedaioko lehenengo azoka honetara bertako baserri guztiek parte hartuko dute eta bakoitzak bere produktuak salgai jarriko ditu. Baserriaren berezko oparotasuna begibistakoa izango da, intxaurrek, artoa, babarruna, kiwia, neguko lo-

reak, etxeko txorizoa, odolkia, mondejuak, irasagarra, gazta... eta beste hainbat produktu ikusteko aukera izango da igandean Bedaion.

Honetaz gain, Bedaioko errota-ko irinarekin egindako taloak ere salduko dituzte (txorizoa eta hirugiharrearekin), eta 100 kilo gatzain erreko dituzte, bisitariek, beraz, nahi adina jateko aukera izango dute.

**Bedaioko lehenengo azoka honetan bertako ia baserri guztiek parte hartuko dute**

**Eguerdiko 14:30ean bazkaria egingo dute, eta Bedaion ekoiztutako babarrunak jango dituzte**

Artisautzak ere bere lekua izango du igandean Bedaioko azokan. Bertaraten direnek artilea hari bihurtzen ikusteko aukera izango dute, baita altzariak nola zaharberritzen diren ere, eta saski egileak, perratzailak eta antzinako beste zenbait eskulan. Artisautza erakusketa egingo dute alde batetik, baina zer erosteko aukera ere izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, «artisau gehienak herrikoak diren arren, pare bat edo kanpotik etorriko dira».

### Eguerdian, bazkaria

Eguerdiko 14:30ean bazkaria egingo dute Artubi elkarteak, eta Bedaion ekoiztutako babarrunak jango dituzte.

### » PARTE-HARTZAILEAK

- 1. Zuaztibarena baserria.
- 2. Belarmuga baserria.
- 3. Jazku baserria.
- 4. Errota baserria.
- 5. Illoreta baserria.
- 6. Gurbidexiki baserria.
- 7. Gurbilhandi baserria.
- 8. Elizetxe baserria.
- 9. Larrageta baserria.
- 10. Bittarte baserria.
- 11. Bedaio-barrena baserria.
- 12. Eskoletxea baserria.
- 13. Zumizketa baserria.

## «Herritarren parte-hartzea ikaragarria izan da, eta asko lagundu digu azoka antolatzen»

**JON AZPIROZ:** Antolatzailea eta Artubi elkarteko kidea

**Azoka»** Abuztuan azoka egitea bururatu zitzairen zenbait herritarrei eta denen laguntzarekin igandean egingo dute.

### N. GARZIA

Jon Azpiroz (Bedaio, 1975) Artubi elkarteko kidea da eta Bedaioko Azokako antolatzaileetako bat.

### Zergatik bururatu zitzaizuen azoka antolatzea?

Ikusita landa lur eremu batean gaudela, gure baserrietako produktuak erakusteko azoka bat egitea pentsatu genuen, herria marxtan dagoela ikus dezaten. Abuztu aldera bururatu zitzaigun eta gero Alegiakoak-eta ere hasi zirela iku-



N. URBIZU

sita aurrera jarraitzea erabaki genuen.

### Azoka antolatzeak lan handia suposatzen al dizute?

Hori erlatibo da. Ilusioarekin egiten duzunean, ez dakizu hori ho-

rrela baloratzen. Herritarren parte-hartzea ikaragarria izan da, eta asko lagundu digu azoka antolatzen.

### Herriaren aldetik erantzun ona jaso duzue, beraz?

Bai, jendea hasieratik oso gustura zegoen, batek gauza bat egingo zuela, besteak bestea...

### Azokan parte hartuko duzuenak denak bedaiotarrak zarete?

%95a bai. Aldaba Zaharrik beste pertsona bat etorriko da, eta saskiak egitera Matxinbentatik.

### Bedaioko baserri guztiek parte hartu al dute?

Guzti guztiek ez, baina gehientsuenek bai.

### Bazkaria ere antolatu duzue, bazkaltzeko jende asko espero al duzue?

70 pertsonentzako lekua egin dugu, eta Artubi elkarteak egingo da.

### Urterogiteko asmoa al duzue?

Aurtengoa ondo ateratzen bada, bai.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean. Santa Klara. 2 logela, sukalde handia, ganabrea eta berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera bistak. 665 70 86 35

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

### GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Txakur sabuesoa galdu da, pintoa. Belarri oso handiak. Kolore horia. Txaparik gabe. Albiztur aldean galdu da. 617 3819 39.



9°  
5°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS.OSTARTEAK  
BEROENA 6°  
HOTZENA 2°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldek beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Belauntza.** Herri bilera Ekintza Plana aurkezteko, Kultur Etxean 19:30ean.
- **Tolosa.** Igandean Gipuzkoako Bertsolari Txapelketara, Donostia-ko Ilunbe zezen-plazara joateko autobusa antolatu du Galtzaundi euskara taldeak 6 eurotan (bakzideek 5 euro). Tolosan 15:30ean eta Villabonan 15:40ean.
- **Tolosa.** Txilipurdika ludoteka abenduaren 24tik urtarrilaren 4ra, 9:00etatik 13:30era Kultur Etxean: jolasak, eskulanak, irteerak, ipuin kontalaria... Izen-ematea, Galtzaundin (943 655004).

### Irteerak

- **Asteasu.** XIII. Mendi Astearen barruan, Zarautz-Zumaia mendi irteera antolatu dute, 08:30ean plazatik abiatu eta 12:30erako itzuliz. Hurrek euro bat eta helduek 3 euro ordaindu beharko dute autobusa.
- **Tolosa.** Deba-Zarautz irteera antolatu du Alpinok iganderako. Ondoren babarrun jatea izango da. Izen-ematea, elkartearen bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).
- **Villabona.** Aizkorrira mendi irteera antolatu du Aizkardik igandeko. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonon (Joxan).
- **Zizurkil.** Txuri Urdinera irteera urtarrilaren 12an Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat. Abenduaren 27a baino lehenago izena eman behar da Zizurkilgo udal bulegoetan.

### Kirola

- **Zizurkil.** Futbol txapelketa Villabonako kiroldegian abenduaren 27an, 21.30etik 13.30era. 13 eta 18 urte arteko gazteentzako da eta izen-ematea Zizurkilgo udal bulegoetan egin behar da, abenduaren 17a baino lehen.

### Azoka

- **Zizurkil.** Bigarren eskuko jostailuen merkatua abenduaren 20an izango da Joxe Arregi plazan. Salgai jarri nahi diren jostailuak azararen 26tik abenduaren 14ra Villabonako gazte lokalean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.
- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



«Bertako polizierekin ere hitz egin genuen; gu ginen ikurrina eskuetan genuen bakarrak; han ez dituzte banderak eramaten», azaldu dute bi gazteek. HITZA

HITZAK bere harpidedunen artean zozketatu zuen Liverpoolera bidaiari ederki igaro zuten irabazleek; «oso esperientzia ona» izan dela aitortu dute Joseba Gabellanesek eta Gorka Ezeizabarrenak

# Bi euskaldun Liverpool-en

### ERREDAKZIOA

**E**zen sari makala. Gustura hartzen diren horietakoak. Izan ere, diseinu berriarekin batera HITZAK orain arte izan dituen harpidedunak saritu nahi izan zituen eta guztien artean, Joseba Gabellanes eta Gorka Ezeizabarrena izan ziren irabazleak. Berrez saria lehen honen amari egokitu zitzaion, baina semeari eman zion. «Izugarrizko ezustekoa hartu nuen, ez bainuen aurrez bidaiareren berri», aitortu du Joseba Gabellanesek. «Saria ezin hobea izan da, futbol zalea naiz eta nirekin joan den Gorka ere bai».

Hala, hegazkina hartu eta Liverpoolera bidaiatu zuten bi tolosarrak, Bolton eta Liverpool taldeen arteko partida ikustera. «Erdigunea ez genuen gehiegi ezagutu,



Gabellanes eta Ezeizabarrena, Anfield futbol zelaian. HITZA

Anfield futbol zelaia eta honen inguruak ezagutu genituen, batik bat», esan du Gabellanesek. Partida egunetan «festa giroa goizetik» hasten dela ere azaldu du tolosarrak. Taldearen dendar opari batzukerosi ondoren, bertako jendearekin hitz egiten-eta aritu ziren bi gazteak. «Euskaldunak oso ondo ikusita gaude han eta Xabi Alonso ere taldeko funtsezko lau jokalarietariko bat da». Topikoa baino, eguraldi kaskarrarena errealitatea dela baieztatu ahal izan zuten. «Euria eta haizea izan genituen eta Beatles-en dendarra joatea pentsatuta bagenuen ere, pinta batzuk hartzen geratu ginen futbol zelai inguruan».

Pena bakarra izan zen, Alonso anaiek ez zituela jokatu; beste batean beharko du...

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak